

# J U L L A K E

NAZARIO OLEAGA

Bilbon jaio ta bizia genduan, 1884.VII.28' an jaio ta 1961.XII.5'an il. Uri onetan emon eban bero bizia, sendia azten eta legegizozari dagokiozan lanetan aritua. Legegizozan nasai eskolatua zanez, entzute andia eban Bizkai osoan, baiña hantz be Bilbon.

Itzal eta nortasun andikoa, oitura zarale, baiña guztien gaiñetik euskaltzale amorratu. Bizkaieraz ondoen jakin arren, beste euskelkiak be ba-ekizan, eta bere liburategia ango ta emengo liburu zar ta barriz ornidua eukon. Liburu bat *Zurtasun Gogoa* ta ainbat lan argitaratu ebazan or emengo aldizkarietan. Beti prest euskera alde lan egiteko.

Urte askotan Azkue zanaren ondoan egon zan, bai ta ainbat ibilte egin be alkarreragaz. Legegizona zanez itz egiteko erreztasuna izan arren, ez eban iñoiiz be bere burua larregirik beintzat erakusten: gizon ixilla zan.

Bere eretxietan eutsi samarra, ez ostera eztabaida zalea. Orretan sartu baiño naiago izaten eban ez entzunarena egin.

1941'an Azkue'k sar-azo eban Euskaltzaindia'n eta bertoko zadortari ipini. Azkenera iñ eroan eban bere kargua, ogei urtez. Azken-urteotan, gaiñera, bertsolarien txapelketak antolatzen be asko lagundu eban, sarri maiko ta maiburuko izanik.

Goian bego gizon siñistetsu, zintzo, maitagarri ta euskaltzale bizia.

## Jean etxepare

Idazlari trebea genduan mugaz andiko gazte au; baiña biotzak uts egiñik, 24 urtetan il yakun, igarotako abenduaren 10'an. Jatsu-Arbildeko seme au amasei-amazazpi urtegaz asi zan euskerazko kondaira batzuk ager-azten, oso polito.

Euskaltzeen Biltzarre'koen artean txit maite eben, eta Azparne'ko ikastetxean zadorlari lez eukien. «Gazte», «Panpino» eta beste aldizkari askotan idazten ebar; bai ta «Herria»n be zezenketak zirala-ta. Biarritze'n oratutako ume-ipuiñetan berak jaso

ebazan sarri ederrak. Gozo ta gizonki idazten ekian.

Goizegi joan yaku biotsez ta adimenez argia zan gazte au; bizitz-udabarrian, lenigaliak doi-doi emoten asi zanean. Euskal literaturari ainbat lan polit, gozo ta beretasunez bete emon eutsozan iru-lau urtetan. Gure itxaropena zan.

Alan be joan yaku. Jaungoikoak emon euskun eta Jaungoikoak eroan dausku; ikusia eban, antza, gazte eder au ondua egoala beretako, ta Beretzat nai eban goiko argi-eskualde baketsuan.

